



BANAKAKO FITXA 3. AREA - "MODESTOENEA"

1. DATU OROKORRAK

1.1. SAILKAPENA

Finkatutako hiri-lurzorua

1.2. KALIFIKAZIOA

A-1 bizitegi-gunea: 6.250 m²

Espazio libreen sistema orokorra: 2.220 m²

1.3. MUGAK ETA KOKAPENA

Planoetan finkatutako mugak, herrigunearen iparraldean kokatzen da.

Iparraldean 4 eta 5 Areekin egiten du muga, hegoaldean 1 Arearekin, ekialdean trenbidearekin eta mendebaldean 2. Arearekin.

1.4. AZALERA TOTALA

Arearen azalera totala honakoa da: 8.470 m².

2. IRIZPIDE ETA HELBURU OROKORRAK

Dauden eraikinen kontsolidazioa. San Juan kaleko 2. zenbakiko atzekaldean dagoen eraikuntza lagungarria antolamenduz kanpo geratzen da espaloiri jarraipena emateko eta lotura berri bat egiteko geralekuko sarrerekin.

3. HIRI-EGITURAREN ARAUBIDEA

3.1. ERAIKIGARRITASUNA ETA ERABILERA

Egungo baldintzetan kontsolidatzen dira, San Juan kaleko 2. zenbakiko atzekaldeko eraikuntza lagungarria izan ezik espaloiri jarraipena emateko eta lotura berri bat egiteko geralekuko sarrerekin, planoetan edierazten den moduan.

3.2. TOKIKO SISTEMA SAREAREN OINARRIZKO ARAUKETA

Dagoenaren kontsolidazioa, espaloiarene jarraipena San Juan kaleko 2. zenbakiko atzekaldean, geralekuko sarrerekin lotura egin arte, planoetan adierazten den moduan.

4. XEHATUTAKO HIRI-ARAUTEGIA

4.1. ORDENATUTAKO PARTZELEN ERAIKIGARRITASUNA

Egungo baldintzetan kontsolidatzen dira, 2 zenbakiaren atzekaldeko eraikuntza lagungarria izan ezik.

4.2. ERAIKUNTZA, PARTZELA, ERABILERA ETA JABARIAREN BALDINTZA ARAUTZAILEAK

Atxikita dauden antolamenduko planoetan islatuko dira.

5. HIRIGINTZA EGIKARITZEKO ARAUTEGI ZEHATZA

5.1. PLANEAMENDU ETA JARDUKETA BALDINTZAK

Zuzkidura publikoak gauzatzeko jarduketa eremu bat finkatuko da, AE-3.1. 11,54 m²-koa, lurzoru nahikoa lortzeko Modesto Enea eta trenaren geralekuaren sarreraren arteko oinezkoentzako lotura osatzeko.

Jarduketa sistema desjabetzarena izango da eta Anoetako udaletxea egingo da kargu urbanizazioaz.

6. HIRI-ANTOLAKUNTZARI GAINJARRITAKO BALDINTZAK

Area akustiko mota:

A.1. Bizitegi-erabilera nagusia duten sektoreak (dauden urbanizatutako areak).

Aplikagarriak diren kalitate akustikoko helburuak:

Area akustiko motak	zarata-indizeak		
	Ld	Le	Ln



ANOETAKO HIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
PLAN GENERAL DE ORDENACION URBANA DE ANOETA
BEHIN BETIKO ONARPEN DOKUMENTUA

A. bizitegi-erabilera	A.1. urbanizatutako areak	65	65	55
-----------------------	---------------------------	----	----	----

7. ERAIKIN EDO ELEMENTUEN KATALOGAZIO BALDITZAK

Done Jakue bidea igarotzen da Areatik, San Adrianeko tunelaren adarra.